

# ELKARGOAK EUSKARAZ

## Berripapera - Boletín

4. Parte hartu - Euskararen txokoa - Hiztegi teknikoak - Euskaraldia 2020  
Jakizu Participa - Txoko del Euskera - Diccionarios técnicos - Euskaraldia Ekainak 19

### EUSKARAREN ALDE EGINDAKOAREN ARGAZKIREN BAT BIDALI

Gogoratu!!! Garaiz zaude [aurreko Jakizun proposatu genizuen](#) Elkargo Ekin ekimenean parte hartzeko. Online erakusketa egingo dugu denok orain arte norberaren lanean euskara normalizatzeko egin ditugun ekimen guztien argazkiekin. Parte hartuko duzu? Gauzak partekatze eta elkar ezagutzeko aukera ona izan daiteke. Bidali zure ekarpena ekainaren 30a aurretik: [basqueproeus@bm30.eus](mailto:basqueproeus@bm30.eus)



### MÁNDANOS UNA FOTO CON TU ACCIÓN A FAVOR DEL EUSKERA

¡Recuerda! Aún estás a tiempo de participar en la iniciativa *Elkargo Ekin* que os propusimos [en el anterior número](#). Haremos una exposición online con las fotos de las iniciativas que hemos hecho hasta ahora para normalizar el uso del euskera en nuestro trabajo. ¿Te animas a participar? Puede ser una buena opción para conocernos. El plazo es hasta el 30 de junio: [basqueproeus@bm30.eus](mailto:basqueproeus@bm30.eus)

### EUSKARAREN TXOKOA PREST!

Hau berri ona! Basqueproren *Elkargoak Euskaraz* proiektuko parte-hartzaile gehienok prest dugu dagoeneko geure baliabideen txoko propioa Elkargoko webgune nagusian. Bertan hainbat tresna eta baliabide topatuko ditugu. Han egongo dira, adibidez, prestakuntza-pilula guztiak, hiztegi teknikoak, galdetzeko aukera, foroak, gida eta bestelako baliabideak... Jo gure webguneko "Colegiad@s" menura (ezkerreko zutabearen): <https://www.cgtrabajosocial.es/bizkaia/colgados/login#>



### ABIERTO EL TXOKO DEL EUSKERA

¡Qué buena noticia! La mayoría de los participantes en el proyecto de Basquepro *Elkargoak Euskaraz* ya tenemos preparado nuestro txoko de recursos en la página web principal del Colegio. Allí encontraremos diferentes herramientas y recursos, todas las píldoras formativas, diccionarios técnicos, posibilidad de preguntar dudas, foros, guía y otros recursos... ¡¡¡ive al apartado "Colegiad@s" de nuestra web!!!

<https://www.cgtrabajosocial.es/bizkaia/colegia/dos/login#>

### HIZTEGI TEKNIKOAK ESKURA

Euskararen Txokoan sartuz gero, *Hiztegiak* atala topatuko duzu. Tresna honek hainbat hiztegitan bilatzen du aldi berean: *Elkargoak Euskaraz* hiztegia (zure elkargoarentzat bereziki sortu dugun hiztegi tekniko), Enpresa hiztegia, Euskalterm, Elhuyar eta 5000 Hiztegia. Gainera, bertako "Ez duzu hitza topatu?" botoian klik eginda, teknikariek behar duzun hitza bidaliko dizute. Egin froga eta bilatu "colegio" hitza, adibidez, edo galdetu iezaguzu behar duzun hitza.

#### Hiztegiak

Hitza:

**Ez duzu hitza topatu?**

#### Diccionarios

Palabra:

**¿No está la palabra que buscabas?**

### DICCIONARIOS TÉCNICOS

Si accedes al Txoko del Euskera, encontrarás el apartado Diccionarios. Esta herramienta busca a la vez en varios diccionarios: el diccionario *Elkargoak Euskaraz* (diccionario técnico creado especialmente para el colegio), el Diccionario de Empresa, Euskalterm, Elhuyar y el Diccionario 5000. Además, haciendo clic en el botón "¿no está la palabra que buscabas?", los-as técnicos-as te enviarán la palabra que necesites. Prueba y busca la palabra Colegio, por ejemplo, o pregúntanos la palabra que requieras.

### EUSKARALDIA BUELTAN: ARIGUNEAK

Aurten Euskaraldia bueltan izango dugu! Eta berrikuntza batekin dator, arigunea: euskaraz egiteko lekuak. Maila indibidualean ahobizi eta belarriprest izan ahalko gara aurrekoan bezala, eta talde-mailan arigunea osatu ahal dugu. Informazio gehiago: <https://euskaraldia.eus/ariguneak/>



### VUELVE EUSKARALDIA: ARIGUNES

¡Este año vuelve Euskaraldia! Y viene con una novedad, los *arigunes*, que son los espacios donde se puede hablar en euskera. A nivel individual podremos ser *ahobizi* y *belarriprest* como en la anterior edición y a nivel de equipo podemos formar un *arigune*. Más información: <https://euskaraldia.eus/es/arigunes/>